



ENERGIA TRANSFORMAZIO KOMUNITARIOKO GIPUZKOAKO BULEGOA SORTZEA



ZERGATIK?

- Gipuzkoaren mendekotasun energetikoa % 92 baino handiagokoa da, hau da, lurraldean bertan ekoizten den energia primarioaren % 8 baino txikiagokoa da. Premiazkoa da mendekotasun hori murriztea.
- Gipuzkoako Energia Iraunkortasunerako Estrategiaren 2050 (GIPUZKOA ENERGÍA 2050) eta energiari lotutako Europako Zuzentarauen sortaren oinarrietako bat, energia-eraginkortasunarekin batera, autokontsumoa sustatzea da.

NORK?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?

Gipuzkoar herritarrak, ETEekin eta lurraldeko beste eragile batzuekin batera, trantsizio energetikoaren erdigunean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Energia Komunitateen sustapenaren bitartez.

NOLA?

Tokiko energia-komunitateetako adituak izango dituen bulego bat sortzea, komunitate bat eratu nahi duten herritarrei, ETEei eta eragileei informazioa, aholkularitza eta laguntza emateko gai izango dena. Aditu horiek eginkizun hauek izango dituzte, besteak beste:

- Gipuzkoako herritarren kultura energetikoa sustatzea eta haiek ahalduztzea, pixkanaka trantsizio energetikoaren premiaz jabetzera eramango dituzten gaitasunak eskura ditzaten (prestakuntza ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak, tailerrak, komunikazioak, etab.)
- TEK proiektuen garapena sustatzea, energia-eredu berrirako trantsizioa bizkortzeko.



NON?

Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



200.000€